

ERREZETA ELEKTRONIKOA

**21etik gora preskripzio lortzeko
ebazpideari buruzko txostena**



EJIE, S.A.
AVDA. MEDITERRÁNEO, 3
01010 - VITORIA-GASTEIZ

1. SARRERA

Txosten honen helburua zera da: 21etik gora preskripzio lortzeko orduan sortzen ziren eragozpenak aurkeztea eta arazo horien ebazpidea zein izan den azaltzea.

2. ARAZOAREN DESKRIPZIOA

Arazoa paziente baten OTE txartela irakurgailuan sartzean gertatzen zen, baldin honek agindurik 21etik gora preskripzio bazeuzkan. Orduan ordenadorearen memoria birtual guztia agortzen zen, sistema erabat blokeatuz eta farmazialariei ordenadoreaz baliatu ahal izatea eragotziz; horrelakoetan, gehienek berau itzaltzea erabakitzen zuten.

3. EBAZPENERAKO HARTURIKO NEURRIAK

Arazoaren analisi fasean detektatu zen arazoaren eragilea ez zela atal zerbitzaria, hau da, P70 aplikazioa ez eta eskatzen den Web Service ere: Web Service-k erantzuten zuen eta bezeroa zen blokeatzen zena. Hori jakinik, sakonkiago aztertzeke geratzen zen gauza bakarra SOAP protokoloa zen. "Trace Utility" erreminta baliatuz, ikusi genuen denbora guztian bezerotik zerbitzariari eskabideak igortzen ari zitzaizkiola finkatua genuen itxarote denbora iraungi ondoren eta ez zela inolako erantzunik jasotzen. SOAP protokoloa hobeto aztertuz, ikusi genuen HLSC10 (HttpLib Connector) liburutegi bat zeukala, SOAPek **HTTP** bidez konexioa egiteko erabiltzen duen berbera, eta honela funtzionatzen duena: SoapClient objektu batek ConnectorProperty "Timeout" ezartzen badu eta zerbitzariak ezin badu erantzun espezifikaturiko "Timeout" balioaz, SoapConnector SOAP Toolkit 2.0-ak bigarren SOAP eskabide bat igortzen du itxarote denbora iraungi ondoren, horrela azkenean ordenadore bezeroa asez. Asetze horren arrazoi nagusia zera zen, komunikazioa HTTPS protokoloaren bidez egiten zela eta SOAPek ez daukala liburutegirik bere 2.0 bertsioan protokolo horrentzat eta HTTP liburutegia erabiltzen zuela. Horregatik, liburutegi hori ezabatu behar izan da bezero ordenadore guztietatik. Arazo hau ebatzia dago SOAP toolkit 3.0 bertsioan; halere ez da erabaki toolkit berri hau ezartzea, dill-etan aldaketa handiak egitea eskatzen duelako (birsortzea, hain zuzen) eta arazoa berehalaxe ebatzi beharra zegoen.

Behin arazoa ebatzi ondoren, ikusi genuen ezin zela gauzatu dispentsatzerik. Beraz, aldaketa batzuk egin behar izan ziren Interface.dill-ean, HLSC10 liburutegia ezabatzearen ondorioz TimeOut-ean egin beharreko aldaketa batzuk gauzatu ahal izateko.